

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1935

IRAGARKIA, 2020ko apirilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita honako proiektu hau: Oiartzungo eta Lezoko udal-mugarteetan, «ST Oiartzun» azpiestazio eraldatzailearen irteerako «Oiartzun-Papresa 1 eta 2» 132 kV-ko linea elektrikoaren aldaketa.

Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan (2002-12-23ko EHAA) eta Sektore elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) zehaztutakoa betetzeko, jendurrean jartzen da gaur egungo instalazioan egindako jarduketak hau:

Esp.: 20-AT-Y-2019-00156.

- Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU.
- Kokalekua: Oiartzungo eta Lezoko udal-mugarteetan.
- Aurrekontua guztira: 279.413,76 euro.
- Xedea: ST Oiartzungo 132 kV-ko lineen sarrerak eta irteerak berrantolatzea.

Jarduketaren ezaugarri nagusiak:

132kV-ko lineak:

- «Oiartzun-Papresa 1 eta 2» linearen irteera berrantolatu da.
- Desmuntatu egin dira, eroale elkartuekin batera, gaur egun dagoen Oiartzun-Papresa linearen euskarri bat eta Oiartzun-Pasajes lineako bi.
- Ap.8 eta Ap.7 euskarrien artean dauden zirkuituetako bat kendu egiten da, eta beste bat zubiak bi muturretan irekita mantenduko da.

Instalazioa egiteko administrazio-baimena eta egikaritze-proiektuaren onarpena eskatzen dira.

Argitara ematen da hori guztia, jende guztiak horren berri izan dezan. Jendeak dokumentazioa aztertu ahal izango du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/>), edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.eus). Egoki ikusten diren alegazioak aipatutako egoitza elektronikoetan edo gaitutako beste legezko bitarteko batzuetan aurkeztu beharko dira, gehienez ere 30 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2020ko apirilaren 27a.

Lurralde-ordezkarria,
JOAKIN TELLERIA AGIRREZABALA.